



Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) batera finantzatutako Hazitek enpresa-arloko I+G laguntzeko programaren erakunde onuradunen betebeharrak eta EAeko 2021-2027 aldirako EGEF Programari buruzko informazioa.

Erakunde onuradunek honako hau egin beharko dute:

- Estatuko eta Europako Erkidegoko dirulaguntza-arauak eta kontrolaren, erantzukizunaren, zehapen-arabidearen eta ez-betetzeen arloko estatuko eta Europako Erkidegoko legeria bete.
 - Baterako finantzatutako eragiketarekin/jarduketarekin lotutako transakzio guztietarako, kontabilitate-erregistro independenteak izan edo kontabilitate-kode egokiak erabili.
 - Diruz lagundutako jarduketari dagokionez eskatutako informazioa eman, eskatzen zaizkion formatuetan; eragiketa/proiektu honi lotutako produktibitate-adierazleen lorpen-mailari buruzko informazioa eman, eta aldi berean gastuak justifikatu (lagundutako enpresen kopurua eta tamaina, ikertzaileen kopurua, berrikuntza edo I+Gko proiektuetan laguntza publikoarekin konbinatzen den inbertsio pribatua...), bai eta Europar Batasunak EGEFaren bitartez batera finantzatzen duela informatu eta jakinarazi (enpresaren web-orria, argitalpenak, liburuxkak...).
 - Iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionalak aplikatzen lagundu bere kudeaketa-eremuan, eta ez izan finantzaketa bikoitzik, dokumentu faltsurik eta abar. Halaber, informazioa eman, izan litezkeen arriskuak antzemateko. Neurri horiek guztiek berekin ekar dezakete iruzur-arriskuen aurkako prozedurak berrikustea eta, iruzur-arrisku handia dagoela ebaluatuz gero, laguntza-eskabidea baztertea edo jasotako laguntza kentzea.
 - Hautatutako eragiketari buruzko finantza- eta administrazio-informazioa eta haren garapenaren jarraipenari buruzkoa artxibatu, bost urteko epean, kudeaketa-agintaritzak (Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusia) onuradunari azken ordainketa egiten dion urteko abenduaren 31tik hasita. Informazio hori, gainera, agintari eskudunen esku jarri beharko du, hala eskatzen diotenean.
 - Komunikabideetan diruz lagundutako proiektuari eta izandako lorpenei buruz egindako aipamen orok zehaztu beharko du egitasmoak laguntza jaso duela Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren eta Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsaren gastu-aurrekontuen kontura. Baterako finantzaketa (EAeko 2021-2027 aldirako EGEF Programaren esparruan) jakinarazi beharko dute diruz lagundutako jardueri buruzko informazio- eta komunikazio-neurri guztietan, eta Europar Batasunak EGEFaren bidez finantzaketan parte hartu duela aipatu beharko dute hedapen horretarako sortutako material eta euskarrietan, Batasunaren ikurra eta Europar Batasunari buruzko aipamena ere jasota: (2021/1060 Erregelamenduko 50. art.)
 - Onuradunaren webgune ofizialean, webgune hori dagoenean, eta hedabide sozialetako kontuetan eragiketaren deskribapen labur bat egingo dute, laguntzaren mailaren, helburuen eta emaitzen araberakoa, eta Batasunaren finantza-laguntza nabarmenduko dute.
 - Adierazpen bat egingo dute, Batasunaren laguntza nabarmentzeko, eta ageriko tokian jarriko dute eragiketa gauzatzearekin zerikusia duten komunikazioaren arloko agiri eta materialetan, jendeari edo parte-hartzaileei zuzendutakoetan.
 - Jendeak ongi ikusteko moduko toki batean, A3 neurriko kartel bat gutxienez edo pantaila elektronikoa baliokide bat jarriko dute, eragiketari buruzko informazioa jasota, eta Funtsen laguntza nabarmenduko dute bertan; onuraduna pertsona fisikoa bada, onuradun horrek, ahal den neurrian, funtsen laguntza nabarmentzeko informazio egokia izango duela bermatuko du, publikoak ikusteko moduko leku batean edo pantaila elektronikoa baten bidez.
- Eredua helbide honetan deskargatu daiteke:

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2025/hazitek-2026/web01-tramite/eu/>

Horrez gain, laguntza ematen duen erakundeak beste informazio- eta komunikazio-neurri batzuk ezarri ahal izango ditu, publikoak jakin dezan erakunde onuradunak EGEF funtsaren laguntza jaso duela, EAeko 2021-2027 EGEF Programa Operatiboaren komunikazio-estrategiaren esparruan.

- EGEF laguntza onartzeak berekin dakar batera finantzatutako eragiketen zerrenda publikoan sartzea.



- Onuradunak ez baditu betetzen 2021/1060 Erregelamenduko 47. eta 50. artikuluetan jasotako betebeharrak, eta neurri zuzentzailerik hartu ez bada, programa kudeatzen duen agintaritzak neurriak aplikatuko ditu, proportzionaltasun-printzipioa kontuan hartuta, eta ezereztu egingo du funtsek dena delako eragiketarako emandako laguntzaren %3ra arte.

EGEFaren baterako finantzaketari buruzko informazioa ematea erakunde onuradunari:

EAEko EGEF 2021-2027 Programa dokumentuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan esku hartzeko estrategia eta helburu politikoak zehazten dira, 2021-2027 programazio-aldirako, Eskualde Garapeneko Europako Funtsez (EGEF) batera finantzatutako jarduerari dagokienez, baita helburu horiek lortzeko programatutako finantza-zuzkidurak ere.

Eusko Jaurlaritzaren Hazitek enpresa-arloko I+G laguntzeko programa EAEko 2021-2027 aldirako EGEF Programaren barruan dago, 1. Helburu Politikoan Europa lehiakorragoa eta adimendunagoa, eraldaketa ekonomiko berritzailea eta adimenduna eta eskualdeko IKT konektibitatea sustatuz», 1a Inbertsio Lehentasuna «Trantsizio Digitala eta Adimenduna», 1.1 Helburu Berezia «Ikerketa eta berrikuntzarako gaitasunak garatzea eta hobetzea», eta kategoria edo esku-hartze mota hauei laguntzen die: 010 - Enpresa txiki eta ertainetako ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak, sareen sorrera barne, 011 - Enpresa handietako ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak, sareak sortzea barne.

Laguntzak EGEFek kofinantzatzen ditu (diruz lagundutako zenbatekoaren %40 gehienez), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060 eta 2021/1058 (EB) Erregelamenduetan xedatutakoa bete behar dute.

Dirulaguntzen araubideak kategoriak salbuesteari buruzko 651/2014 Erregelamenduari jarraitzen dio.

Eragiketa/proiektuaren kostuak eta, hala badagokio, diruz lagun daitezkeen zeharkako kostuak zehazteko metodoa eta dirulaguntza ordaintzeko baldintzak Hazitek enpresa-arloko I+G laguntzeko programa arautzen duen aginduan eta erantsitako justifikazio-kontuak aurkezteko jarraibideetan jasotzen dira.